

Espainiak «eskuinerantz» jo ez dezan negoziazioa eskaini dute sindikatuek

Funtzionarien soldatak igotzea exigitu dute Redondok eta Gutierrezek

Sindikatuen eskaerak negoziatzeko eskatu zioten atzo Gobernuari Antonio Gutierrez eta Nicolas Redondok, «politikak eskuinerantz egin dezan arriskua» saihesteko asmoz. UGT eta CCOO sindikatuetafako ordezkariak CEOE patronalaren aurka ekin zioten, «arkaiko eta atzerakoia» baita beren ustetan.

MADRIL

UGT eta CCOOk deituta, funtzionarien 5.000 ordezkari Madril en bildu ziren atzo 'Erantzuten segitzen dugu' lemapean egindako batzarrean. Joan den astean Jose Maria Cuevasek 6.000 enpresarien aurrean egin bezala, Nicolas Redondo UGTko idazkari nagusiak eta Antonio Gutierrez CCOOko buruak Gobernuari ekonomi politika aldatzea eskatu zioten. Enpresariak eta sindikatuek eskatzen dutena, ordea, guztiz kontrajarria da.

Funtzionariei dagokienez, CCOO eta UGTko buruak funtzionarien soldatek erosteko ahalmena gorde dezaten eskatu zuten. Horretaz gain, soldaten berrikuspenarako klausula berriz indarrean jartzea, Administrazioak lan publikoaren eskaintza egitea eta zerbitzu publikoa hobetzea exigitu zuten sindikatuek.

Europa osoko herrialdeak «eskuinerantz» abiatzen ari direla adierazi zuen Gutierrezek, eta Espainian ere berdin gerta litekeela ohartarazi zion Gober-



Redondo eta Gutierrezek beren sustengua eman nahi izan diete funtzionariei.

EFE

nuari: «Entzun nahi duenak, entzun dezala, herrialde honentzat jadanik zertxobait berandu izan daitekeelako». Felipe Gonzalez-en Gobernuaren politika «eskuinari indarra ematen ari da» salatu zuen Gutierrezek eta honen adibide moduan, etengabea Gobernuak soldaten igoeraren apaltasuna eskatzea jarri zuen. CCOOko idazkari nagusiaren arabera, langabeziaren gorakada soldatei leporatzea «gezur nazkagarria» da. Exekutiboak sektore pribatuei sektore publikoari baino garrantzi handiago ematen diela kritikatu zuen Gutierrezek,

eta sindikatuen eskakizunak eztabaida ditzan proposatu zion. Sindikatuen mobilizazioak eraginkorrak direla baieztu zion CCOOko buruak Madrilko pabilioi batera hurbildu ziren funtzionarien ordezkariak, «nahiz eta zenbaitek ezer lortzen ez dugulako irudia eman nahi duten».

FUNTZIONARIEN ESKAEREN ALDE

Nicolas Redondo UGTko ordezkariak ere gogor ekin zion soldata murrizketaren aurka, funtzionariei % 1,8 besterik igoko ez zaiela kontuan hartuta. Langile publi-

koei soldatak gutxi igotzearekin Gobernuak eredu izan nahi badu, kale egin duela esan zuen Redondok, «enpresariak ez baitute inoren adibiderik behar politika horiek segitzeko». «Funtzionariak eskatzen duzuen bidezkoa, moderatua eta zuhurra da» Redondoren esanetan, eta orain arte egindako mobilizazioek aurretik ere jarraitu behar dutela gehitu zuen. Nieves UGTko zerbitzu publikoetako ordezkariak «sektore publiko modernoa» osatzeko deialdia egin zuen, eta zenbait zerbitzu pribatizatzearen aurka agertu zen.

DGTk trafiko istripuen aurkako kanpaina gogorra prestatu du

MADRIL

Espainiako Trafiko Zuzendaritzak (DGT) errepideetako istripuak gutxitzeko kanpaina hasiko du apirilaren 4ean. 'Azkenean, arduragabekeriak ordaindu egiten dira' lemapean egingo den kanpaina, istripuek zer-nolako kalte psikologiko eta fisiko ekartzen dituzten erakutsiko da.

Miguel Maria Muñoz DGTko idazkari nagusiak atzo aurkeztu zuen kanpaina joan den urtean 'Arduragabekeriak gero eta gehiago ordaintzen dira' lemaekin egindakoaren jarraipena da. Orduan eztabaida bizia sortu zuen kanpaina horrek, telebistako iragarkietan oso istripu latzen irudiak agertzen baitziren, hildako eta zaurituak barne. Apiri-

laren 4ean, trafiko istripuak gutxitzeko Aste Santuko oporren aurretik telebista, zinema eta egunkarietan ikus ahal izango den kanpaina, istripua izan zutenak epe bat igarota zer-nola geratu diren ikusiko da. Aktore britainiarrek antzezturik, istripuen ondorioz itsu, paraplejiko, alar-gun, burmuinetako gaixotasunak eta lesio fisikoak dituzten pertsonak agertuko dira. Istripuak gehigizko abiaduran gidatzeagatik, segurtasun uhala edo kaskoa ez jartzeagatik eta alkohola edan ondoren gidatzeagatik izan direla azpimarratu du DGTk.

Muñozek onartu egin zuen kanpainaren gogortasuna ez dela zenbait ikusleren gustukoa izango, baina eraginkorra denik ez zuen zalantzarik agertu.

Anglesek Dublinen jarrai lezakeela dio orain Poliziak

DUBLIN

Antonio Angles Dublinen ezkutaturik egon litekeela zabaldu zuen atzo Hego Irlandako Poliziak. Herenegun, Hego Irlanda eta Ingalaterrako mende-baldeko kostaldearen artean etengabe bidaiak egiten dituzten itsasontzieta-ko bat hartu zuen susmoa zuela jakinarazi zuen Poliziaria irlandarrak.

Alcasserreko hiru neskak bahitu, bortxatu eta ondoren hil zituen Angles Hego Irlandan ikusi dutela dioten jende ugari deitu zuten atzo Poliziaria. Irlandar hauek Angles Dublin erdialdean ikusi zutela jakinarazi zioten Poliziari. Honek ez du hipotesi hau baztertu, askoz errazagoa baita Dublinen ezkutatzea herri txiki osatuta dagoen Hego Irlandako barnealdean baino. Anglesek ingelesera apur bat besterik ez dakienez, jende guztiak elkar ezagutzen duen herri txiki batean inor bere presentzia ez ohartzea zaila goa da.

Antonio Anglesek Hego Irlanda utzi eta beste herrialde batean egon daitekeela onartu arien, Poliziaria irlandarrak datorren egunotan Alcasserreko nesken hiltzailearen arrasto gehiago eduki ditzakeela uste du.

Polizi iturrien esanetan, «hemen egun egiten duen hotza dela eta, Antonio Angles kalera atera behar du janari pixkat, arropa edo mantaren bat lapurtzeko».



Kanpaina gogorrek trafiko istripuak gutxitzen dituztela dio DGTk. EFE



ARRASATEKO UDALA

IRAGARKIA

Udal Plenoak, 1993ko otsailaren 26an egindako ohizko bilkuran, besteak beste, ondorengo akordioa hartu zuen:

Lehen: Gipuzkoako Foruen Plaza 4 z.k. eraikinaren sarrerarekin mugan, luzeran 3,40 m. eta sakoneran 1,56 m-ko lursailko kalifikazio juridikoaren aldaketa-espedienteari hasiera ematea, jabari publikotik desafektatzeko eta bide publikoa (ondare-ondasuna) gertatzen den lurzati moduan kalifikaturik gertatzeko.

Bigarrena: Espedientea jende aurrean erakustea hilaletako epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Ediktu Taulan iragarkia argitara eman eta jarri, egoki erizten diren alegazioak egin ahal izan daitezkeen.

Arrasate, 1993ko martxoak 25
ALKATEA